

Funtsezko baliabideak

Enpresa batek aurrera egin dezan beharrezkoak dira aktibo batzuk, horiek dira funtsezko baliabideak. Lau motatakoak daude: fisikoak, intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

Baliabide fisikoak:

Gure kasuan lokal bat beharko dugu aplikazioa mantentzeko eta bezeroekin harremanetan jartzeko. Lokalak 58 m² neurtzen ditu eta 750 euro ordaindu beharko ditugu hilabetean. Makinei dagokionez, lau ordenagailu erosiko ditugu langileentzat bakoitzak 275 euro balio duelarik. Horretaz gain, lau mahai erosiko ditugu 134,80 eurokoak eta horrekin batera lau aulki 27,71 eurokoak. Ordenagailuak erabil dezagun beharrezkoa izango da Interneta kontratatzea eta horretarako router bat ezarriko dugu lokalean.



Baliabide intelektualak:

Bertan azaldu beharrezko atalak hauek izango liratezke: marka, informazio pribatua, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu baseak.

Gure kasuan app bat sortu dugunez, patentea egitea eta logoa erregistratzeak 4102€ balioko ditu. Bestalde, web orri bat izango dugu gure bezeroak hornitzeko eta hura oso itxura onekoa eta argia izango da erabiltzeko. Era berean, gure app-a sortzeko beharrezkoa izango da lan intelektualaren kontratazioa, zehazki, enpresa baten kontratazioa app-a sorrarazteko eta ezarri nahi dizkiogun ezaugarri guztiak ezartzeko.



Giza-baliabideak:

Giza baliabideak dira beharrezkoak diren langileak. Gure kasuan (2) informatikari beharko ditugu, aplikazio bat nola mantendu eta eguneratu dakitenak. Langile bakoitza hainbat supermerkatuz arduratuko da, eta proiektua aurrera doan heinean langile gehiago kontratatuko ditugu beharrezkoa bada.

Finantza-baliabideak:

Proiektua martxan jartzeko behar diren aktiboen prezio totala da. Gure kasuan baliabide fisikoaren aldetik, lokala 750€ hilabetero, 4 ordenagailu 275€ bakoitzak, 4 mahai 134,80€ bakoitzak eta horrekin batera lau aulki 27,71 eurokoak, eta Másmóvil konpainiaren zuntz-optikoa 29,99€ hilabetez; guztira 2255,03€. Baliabide intelektualei dagokienez, patenteak egiteak eta logoa erregistratzeak 4102€ guztira. Giza baliabideen aldetik, langileen soldata ordaintzeko 3000€ beharko ditugu.